


# ADIKZIOEN GAINEKO INKESTA

## Euskal Autonomia Erkidegoa



DATUEN AURRERAPENA

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD


# EZAUGARRIAK

- Azken 25 urteetan (1992az geroztik) EAEn drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuk analizatzen dituen serie historikoa. Funtsezko tresna bihurtu da arlo honetako politikak bideratzeko.
- **Helburua: drogen kontsumoari eta beste adikzio batzuei buruzko egoera, haiekin erlazionatutako gizarte-faktoreak, eta problematika horren gainean herritarren iritzia eta arrisku-pertzepzioa ezagutzea.**
- Euskadin bizi diren **15 eta 74 urte bitarteko pertsoneri etxez etxe egindako inkesten** bidez gauzatzen da. 2.013 pertsonako lagina erabili da. % 95eko konfiantza-mailarako % 2,18ko lagin-errorea dauka.
- Berritasunen artean, edizio honetan inkestaren izenburua (substantziarik gabeko adikzioak barne hartzeko) eta aldizkakotasuna aldatu dira, eta kontsumoetan genero-ikuspuntua jaso da.

# SUBSTANTZIEN KONTSUMOA AZKEN 12 HILABETEETAN SEXUAREN ARABERA

- 15 eta 74 urte arteko herritarrek baimendutako drogak kontsumitzen dituzte gehien: alkohola eta tabakoa.
- Azken 12 hilabeteetan herritar horien % 81,2k eta % 25,9k alkohola eta tabakoa, hurrenez hurren, kontsumitu dituzte.
- % 15,4k psikofarmakoak, % 8,6k kalamua eta % 1,9k legez kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitu ditu azken urtean.
- Gizonek emakumeek baino gehiago kontsumitzen dute, psikofarmakoen kasuan izan ezik.


KONTSUMO PREBALENTZIA (%). EAE, 2017



# DROGAK KONTSUMITZEN HASTEKO ADINA

## HAINBAT SUBSTANTZIA KONTSUMITZEN HASTEKO ADINA


- **Gazteak lehendabizi alkohola eta tabakoa kontsumitzen hasten dira eta, ondoren, kalamua.**
- **Psikofarmakoak dira beranduen hartzen hasten diren substantziak.**



# JOKOAREN PRAKTIKAREN BILAKAERA AZKEN 12 HILABETEETAN

- **Loteriak eta kinielak dira, alde handiarekin, gehien kontsumitzen diren jokomotak.**
- **Euskadiko biztanleen % 25,7k loterietan eta apustu-jokoetan jokatzen du asteen behin. 2012an proportzio hori pixka bat txikiagoa zen (% 22,4).**

JOKO MOTA DESBERDINETAN ASTEAN BEHIN GUTXIENEZ JOKATZEN DUTELA ADIERAZTEN DUTEN PERTSONEN PROPORTZIOAREN BILAKAERA (%). EAE, 2012-2017




# JOKOAREN PRAKTIKAREN BILAKAERA AZKEN 12 HILABETEETAN

- Proporzioa baxua den arren, kirol-apustuak dira azken 5 urteetan gehien hazi diren joko-praktikak.
- Txanpon-makinek, kasinoko jokoek eta bingoak ez dute aldaketarik sumatu.

LOTERIA, KINIELAK ETA ANTZEKOAK EZ DIREN JOKOETAN ASTEAN BEHIN GUTXIENEZ JOKATZEN DUTELA ADIERAZTEN DUTEN PERTSONEN PROPORZIOAREN BILAKAERA (%).


EAE 2012-2017.



# JOKORAKO ADIKZIOAREN BILAKAERA

- 2012 eta 2017 urteen artean joko aktiboa duten pertsonen proportzioa handitu egin da (% 22,6tik % 26,3ra).
- 2017an gizonen adikzioak emakumeena hirukoizten du; eta, adinari dagokionez, gazteak eta adin ertainekoak nagusi dira.

JOKO AKTIBOA ETA ADIKZIO ARRISKUA DUTEN HERRITARREN BANAKETA HAIEN MAILAREN ARABERA (%). EAE, 2012-2017



Prebalentzia (%) sexuaren eta adinaren arabera

EMAKUMEAK: 1,2

GIZONAK: 3,9

15-24: 3,4

25-34: 2,3


35-54: 2,9

55-74: 1,9

# INTERNETEN ARRISKU ERABILERAREN ETA ERABILERA PROBLEMATIKOAREN BILAKAERA

- 15 eta 74 urte arteko herritarren % 14,9k ez du internet erabiltzen. % 80,1ek arazorik gabe erabiltzen du eta % 5ek arrisku-erabilera edo erabilera problematikoak dauka.
- 2012 eta 2017 artean, internet erabiltzen duten pertsonen proportzioa hazi egin da (% 72,2tik 85,1era).
- Interneten arrisku-erabilera eta erabilera problematikoak pixka bat handiagoak da emakumeen artean.

INTERNETEN ARRISKU ERABILERAREN ETA ERABILERA PROBLEMATIKOAREN PREBALENTZIAREN BILAKAERA ORMAN-EN TESTAREN ARABERA (%). EAE, 2012-2017







# EUSKADIKO HERRITARREN ALKOHOL KONTSUMOKO PATROIA, LANEGUNETAN ETA JAIEGUNETAN, SEXUAREN ARABERA (2017)

- Euskadiko biztanleen % 66,5 abstemia da lanegunetan. Hala ere, proportzio hori % 33,7ra jaisten da asteburuetan.
- Bi kasu horietan emakumeak dira alkohola kontsumitzea gehien saihesten dutenak.

## ASTEGUNEAN



## ASTEBURUAN




# ALKOHOLAREN ARRISKU KONTSUMOKO JARRAIBIDEEN BILAKAERA

- Lanegunetan zein asteburuetan gehiegizko edo arriskuko kontsumoa egiten duten pertsonen proportzioa murriztu egin da.

*OHARRA.- Kontsumitutako edari motan eta kantitatean oinarritutako sailkapen horren arabera, **gehiegizko** kontsumotzat jotzen da egun arrunt batean pertsona batek **65 eta 120 g** arteko alkohol kantitate baliokidea kontsumitzen bada. **Arriskuko** kontsumotzat hitz egiten da kontsumitutako alkohol kantitatea **120 g-tik gorakoa** bada.*


LANEGUNETAN ALKOHOLAREN EDO KONTSUMO ETA GEHIEGIZKO ARRISKUTSUAREN ASTEBURUETAN KONTSUMOAREN BILAKAERA (%). EAE, 2004-2017



# ALKOHOLAREN ARRISKU KONTSUMOKO JARRAIBIDEEN BILAKAERA

- “Botiloia” praktika 2006. urtetik hona ia ez da aldatu 15 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean: azken urtean % 35,2k egin du.
- Lehen aldiz, asko jaitsi da ‘botiloia’ astero praktikatzeko dutenen proportzioa.

## BOTILOIAREN PRAKTIKA AZKEN 12 HILABETEETAN (%)




\*Adierazle hau 15 eta 34 urte bitarteko herritarrei buruz bakarrik dago

# TABAKOAREKIKO HARREMANAREN BILAKAERA


- Ohituraz zein tarteka erretzen duten pertsonen proportzioa murriztu egin da: 2017ko datuek serie osoko prebalentzia baxue-nak erakusten dituzte.
- 2017an inoiz erre ez dutenen (% 50) eta erretzeari utzi diotenen (% 27) proportzioa, pertsona guztien % 75,3 izatera heltzen da.

TABAKO KONTSUMOAREN ARABERAKO HERRITARREN BANAKETAREN BILAKAERA (%). EAE, 2000-2017



# TABAKO KONTSUMOA EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

## GIZONAK



Kontsumo handiagoa  
45-74 urte artean (% 28,2)

## EMAKUMEAK




Kontsumo handiagoa  
15-44 urte artean (% 20,5)

# KALAMUAREN KONTSUMOAREN BILAKAERA

- 2012. urtearen ondoren kontsumoko adierazle orokorren prebalentziak gorakada izan duela ikus daiteke. Hala ere, inola ere ez da krisiaren aurreko garaiko kopuruetara heltzen.
- 15 eta 24 urte arteko gazteek (% 16,4) eta, batez ere, gizonek (% 8,8, emakumeen % 3,7 diren bitartean) gehiago kontsumitzen dute.
- Kalamua kontsumitzen hasteko adina nahiko egonkor dago 18 eta 19 urteen artean.

## KALAMUAREN KONTSUMOAREN ADIERAZLE OROKORREN PREBALENTZIA (%). EAE, 1992-2017




\*Eguneroko kontsumotzat jotzen da azken 30 egunetan astean 4 egunez, gutxienez, kontsumitzea.

# LEGEZ KANPOKO BESTE DROGA BATZUEN (KALAMUA EZ DIRENAK) BILAKAERA

## LEGEZ KANPOKO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOKO PREVALENTZIA OROKORRAK (%). EAE, 1992-2017


- 2004tik 2012ra legez kanpoko drogen —kalamua ez direnak— kontsumoaren prebalentzia murriztuz joan da.
- Krisiaren ondorengo 2017ko edizio honetan ikus daiteke noizean behingo kontsumoak (bizitzan noizbait) gora egin duela eta, neurri txikiagoan, haien kontsumoak azken 12 hilabeteetan.
- Kalamua ez den legez kanpoko drogaren bat kontsumitzen hasteko adina atzeratu egin da.



# LEGEZ KANPOKO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOAREN DUELA GUTXIKO BILAKAERA

- Azken 12 hilabeteetan kokainaren kontsumoa da gehien hazi dena.
- Hala ere, substantzia honen azken aldiko kontsumo-prebalentziak duela hamar urte pasatxo zegoenaren oso azpitik egoten jarraitzen du.

LEGEZ KANPOKO HAINBAT DROGEN KONTSUMOAREN BILAKAERA AZKEN 12 HILABETEETAN (%). EAE, 2000-2017






# PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOAREN BILAKAERA

- Bizitzan zehar eta azken 12 hilabeteetan psikofarmakoen kontsumo-prebalentziak gora egin du.
- Psikofarmakoen kontsumo-prebalentzia emakumeetan handiagoa da hamar urteko adin-tarte guztietan.
- Gizonen eta emakumeen arteko kontsumo-diferentziak bereziki nabarmenak dira adineko pertsonen artean.

PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOKO PREBALENTZIA OROKORRAK (%). EAE, 2006-2017



# ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA HORIEI ARRETA EMATEA EUSKADIN

## Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila

### OSASUN PUBLIKOA ETA ADIKZIOAK

- Araudia: 1/2016 Legea, Adikzioen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- Plangintza: Euskadiko Adikzioen Plana.
- Politiken eta programen diseinua, koordinazioa eta ebaluazioa.
- Sustapena: Laguntzen ordena.

## OSAKIDETZA

- Arreta.
- Tratamendua.

## TOKIKO ERAKUNDEAK

- 48, talde teknikoarekin eta/edo Adikzioan tokiko planarekin.
- Prebentzio-programak.

# Eskerrik asko



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD